



HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA

2005-2006 IKASTURTEA

1. SARRERA

2005-2006 ikasturterako Ikuskaritza Plan honen bidez garatzen da lehendabiziko aldiz Hezkuntza Ikuskaritzaren Hiru Urteko Plan Nagusia, Hezkuntza-sailburuordeak 2005eko azaroaren 14ko Ebazpenaren bidez onartu zuena. Hiru Urteko Plan Nagusi horrek EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren helburuak eta lan-ildo nagusiak zehazten ditu 2005-2008ko aldirako. Gainera, ikasturte honetarako Planak erantzuna eman nahi die 2004-05 ikasturtearen bukaeran gauzatu zen barne eta kanpo ebaluazio-prozesuaren ondorioei. Izan ere, prozesu horren bidez premia eta itxaropenei buruzko informazio esanguratsua lortu zen eta jakin zen zein gogobetze-maila zeukaten Ikuskaritzaren jardueraren hartzaileek, barne-hartzaileek (ikusari, lurralde-burutza, ordezkari, zuzendari eta sailburuordeek) eta kanpo-hartzaileak (ikastetxeetako zuzendariek).

“Zerbitzuak identifikatu eta ematea”MP02 makroprozesuaren ,menpeko Prozesu Giltzarrietan sartuta dauden jarduerak edo azpiprozesuak Planaren ardatz nagusia osatzen dute. Jarduera horietako asko Ikuskaritzak normalean eramaten ditu aurrera, ikastetxeekin eta Administrazioarekin dituen harremanetan. Badira ere ikasturtean lehentasunezko zat jotzen diren azpiprozesu batzuk, ondorengoak esate baterako: irakasleen ebaluazioa, Hezkuntza Bereziko gelen kontrola, ikasle etorkinen eskolatzeta, haur-eskola, ikastetxeen jardueren kontrola, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen kalitatea kudeatzeko sistemaren ebaluazioa eta, kudeaketaren bikaintasuna aitortzeko asmoz, Euskalit-en kanpo-ebaluaziorako prozesura aurkezten diren ikastetxeentzako ebaluazio-taldeetan parte-hartzea.

Plan honetan ere ondorengo atalak sartzen dira: Ikuskaritzaren alde aurreko prestakuntza, plantilaren euskalduntzea hobetzeko jarduerak, lan-batzorde eta -talderik nabarmenenak eta Planaren beraren barne- eta kanpo-ebaluaziorari buruzko atal bat.

Urteko Plan hau ondorengo ataletan egituratzen da:

- Ikuskaritzaren makroprozesuetatik eratorritako jarduerak. (I. eranskina)
- Azpiprozesuak aplikatzeko zehaztapenak. (II. eranskina)
- Aurreikusitako prestakuntza instituzionala.
- Euskalduntzea.
- Lan-batzorde eta -taldeak.
- Urteko Planaren ebaluazioa.

2. IKUSKARITZAREN MAKROPROZESUETATIK ERATORRITAKO JARDUERAK.

2005-2006 ikasturterako aurreikusten diren jarduerak, Ikuskaritzaren makroprozesuetatik eratorritakoak, 2005-2008ko Hiru Urteko Plan Nagusiaren ondorio dira. Kontuan izan behar da Hiru Urteko Plan Nagusi hori 2004-05ean egin zen inkesta bati buruzko azken txostenean agertzen diren ondorioak jakin ondoren idatzi dela. Inkesta hartan Ikuskaritzaren jardueren barne- eta kanpo-hartzaileek Ikuskaritzarekiko zeuzkaten premia eta itxaropenak eta baita gogobetetze-maila ere jasotzen ziren.

Ikuskaritzaren beraren premietara eta ISO 9001:2000 Araura egokitzen den kalitatea kudeatzeko sistema batean sakonduz gauzatuko dira 2005-06 ikasturtean Hezkuntza Ikuskaritzaren prozesuak

Ikuskaritza Nagusiak eta Kalitate Batzordeak lideratu behar dute Ikuskaritzaren Planeko makroprozesuetatik eratorritako jardueren garapena.

3. AZPIPROZESUAK APLIKATZEKO ZEHAZTAPENAK

2. Eranskinean zehazten dira ikasturte honetan aurrera eraman behar diren Urteko Planaren jarduerak edo azpiprozesuak, Hezkuntza-Administrazioaren arduradunen eskariz egin behar diren beste jarduerak ahaztu gabe. Jarduera edo azpiprozesu horiek “Zerbitzuak identifikatu eta ematea” MP02ren menpeko Prozesu Giltzarrietan sartuta daude. Aipatutako eranskinean ondorengo atalak zehazten dira azpiprozesu bakoitzerako:

- Ikuskaritzak gauzatu beharreko azpiprozesuaren edo jardueraren izena.
- Aurreikuspenen arabera, gauzatzeko erabiliko den aldia.
- Azpiprozesuaren emaitza: txosten mota eta noiz emango den.
- Azpiprozesuaren aplikazio-eremua: jarduten den ikastetxe edo erakundeak.
- Azpiprozesua planifikatu eta programatzeaz arduratzen den taldea edo arduraduna.
- Ikastetxeetan jarduera hori egin behar duten ikuskariak eta haien jarduera-eremua: zonaldea, lurraldea edo erkidegoa.

Taldeetako arduradun eta partaideei dagokie liderrak izatea Ikuskaritza Planeko makroprozesuetatik eratorritako jardueretan.

4. AURREIKUSITAKO PRESTAKUNTZA INSTITUZIONALA

Hiru Urteko Plan Nagusian ezarrita dauden lehentasunak kontuan hartuta, 2005-06 ikasturtean, aurreikuspenen arabera, jarraian zehazten den prestakuntza instituzionala egingo da:

- Kalitate- eta Etengabeko Hobekuntza-programetako prestakuntza:
 - Kalitatea kudeatzeko sistema bat ezartzeko aholkularitza, ISO 9001:2000 ereduaren arabera.
 - EFQM: prestakuntza hau oraindik egin ezin izan duten ikuskari berriei emango zaie.
- Irakasleen eta zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioari buruzko prestakuntza espezifikoa.
- Gatazketan bitartekari izateari buruzko prestakuntza-jardunaldiak.

- Hezkuntza-legeriatik eratorritako arau- eta administrazio-alderdietan sakontzea:
 - EAEko Dekretuak eta Aginduak.
 - MECeko Errege Dekretuak eta Oinarrizko Aginduak.
 - Dokumentazio akademikoa eta administratiboa.
- Lege- eta hezkuntza-alderdiei buruzko prestakuntza:
 - Diziiplina-espedienteak.
 - Erreklamazioak. Kasu berezien azterketa.
- Informatikako ikastaro espezializatuak: Acces, Power Point, ...
- EEDren aplikazio informatikoari buruzko prestakuntza espezifikoa.
- Haur Hezkuntzari buruzko prestakuntza espezifikoa:
 - Mintegi iraunkorra.
 - Gaiari lotutako kanpo-prestakuntzari buruzko jardunaldiak.
- Biltzarretara, Mintegietara...etab. etara joatea, txostenak aurkezten dituztenak, batez ere.

Ikuskari Nagusiak erabakiko du nortzuek hartuko duten parte prestakuntza-ikastaro horietan, zerbitzuaren premiak kontuan hartuta. Gainera, informazio-bilerak egiten jarraituko da, Ikuskaritzarentzat interesgarritzat jotzen diren gaiei buruzkoak.

5. EUSKALDUNTZEA.

Ikasturte honetan, Hezkuntza Sailak ondorengo liberazioak baimendu ditu euskarazko ikastaroetara joateko, Ikuskaritzarentzako IRALE Programan dauden baldintzak kontuan hartuta:

- Bizkaia: arratsaldean 2 orduko liberazioa duen ikuskari bat, ikasturte osoan.

Bestalde, HE2 egiaztatuta duten eta euskararen ezagutza-maila hobetu nahi duten ikuskarrien talde bat lurralderen batean osatuz gero, azken bi ikasturteetan egindakoaren antzeko ikastaro bat egingo da, behar diren hobekuntzekin helburua lortzeko baliagarri izango dena.

Gainera, aztertuko da HE1 ere lortu ez duten ikuskarientzat ikastaro espezifikoa bat antolatze aukera, ahoz eta idatziz ulertzeko maila bat lortu dezaten, bilerak eta barne-idazkiak bi hizkuntzetan egin ahal izateko lagungarri izango dena.

Jarduera horiek guztiek euskarak gero eta presentzia handiagoa izatea dute helburu, bai Ikuskaritzaren txostenak egitean, bai, batez ere, Ikuskaritzaren Zerbitzuan berean egiten diren bileretan.

6. LAN-TALDEAK ETA -BATZORDEAK

2005-2008ko aldirako Hiru Urteko Plan Nagusiak zehazten ditu lan-talde eta -batzorde batzuen funtzionamendua eta ardurak: Kalitate Batzordea, Ebaluazio Batzordea, bisitak eta Ikuskaritzaren barneko administrazio-antolaketa hobetzeko Taldea eta Planeko Azpiprozesu Taldeak.

- **Kalitate Batzordea**

Ondorengo ikuskariek osatuko dute: José Antonio Romerok (batzordeko koordinatzaileak), Ricardo Juanek, José Ignacio Molinuevok, Jesús M^a Kortazarrek, Elías Salaberriak eta José M^a Oñatek.

Batzordearen osatzaileek astean egun bateko dedikazioa izango dute, 2002ko ekainaren 18ko Aginduak eta 2005-08ko Hiru Urteko Plan Nagusiak xedatutako funtzioak aurrera eraman ahal izateko.

- **Ebaluazio-Batzordea**

Ondorengo ikuskariek osatuko dute: Javier Granjak (koordinatzaileak), Luis Rojok, M^a Angeles Zarraonaindiak, José A. Fernándezek, Peli Bilbatuak eta Mercedes Hidalgok.

Batzordeko partaideek astean egun bateko dedikazioa izango dute, 2005-08ko Hiru Urteko Plan Nagusian ezarritako jarduerak aurrera eraman ahal izateko.

Azpiprozesuak aplikatzeko zehaztapenak dituen 2. Eranskinean, oharretarako zutabearen adierazten dira Batzorde honek 2005-06 ikasturtean koordinatuko dituen azpiprozesuak.

- **Ikuskaritzaren bisitak eta barneko administrazio-antolaketa hobetzeko taldea.**

Ikuskaritzaren bisiten diseinua hobetzeko eta lurralde eta zonalde bakoitzaren administrazio-antolaketa hobetzeko hasi den lanari jarraipena emateko asmoz, ikuskarien jarduera-planari, agirien kudeaketari, artxiboei, administrazio-lanari eta ikastetxeekiko komunikazioari begira, ondorengo ikuskariek osatutako hobekuntza-talde bat eratzen da: Carmen Echeverriak (arduradunak), José Manuel Pinedak, Pedro Luis Rodríguezek eta Juan Antonio Altozanok.

- **Azpiprozesu-taldeak**

Azpiprozesu-taldeen ardurak Hiru Urteko Plan Nagusiaren 7.4. puntuan sartzen dira. Azpiprozesu-talde bakoitza osatzen duen ikuskarien kopurua aldakorra da eta ikuskarien izenak Urteko Plan honen 2. Eranskinean aipatzen dira.

7. URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA.

Barne- eta kanpo-hartzaileen premiak eta itzaropenak ezagutzea da Hezkuntza Ikuskaritza hobetzeko funtsezko alderdietako bat, premia eta itzaropen horiei erantzun hobea eman ahal izateko. Ikuskaritzak berak eman dio gai honi lehentasuna, zerbitzua hobetzeko estrategiei buruzko hausnarketan.

Hiru Urteko Plan Nagusia ikasturte bakoitzaren bukaeran ebaluatuko diren urteko planetan konkretatzen da. Horretarako, 2005-06 ikasturtearen bukaeran, Urteko Plan honen kanpo-ebaluazioa egingo da, Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne- eta kanpo-hartzaileek zein gogobetetze-maila duten adieraziko duena. Ateratako ondorioak hurrengo ikasturtearen Planean agertuko dira.

Ondorengoak dira ebaluazio honetarako kontuan hartuko diren alderdiak:

- **Barne-hartzaileek zein gogobetetze-maila duten ezagutzea:**
Ikuskaritzakoek: ikuskariek, zonalde-burutzek, lurralde-burutzek eta Ikuskaritza Nagusiak.
Hezkuntza Administrazioakoek: lurralde-burutzek, ordezkariak, Saileko zuzendariek eta sailburuordeak.
- **Kanpo-hartzaileek zein gogobetetze-maila duten ezagutzea:**
Ikastetxeetako zuzendariek.

Halaber, Ikuskaritza Nagusiak Urteko Azken Memoria egingo du, ondorengo alderdiak sartuko dituena: Urteko Planaren emaitzak, Ikuskaritzaren antolakuntza-alderdiak, Plan Nagusia betez Hezkuntza Ikuskaritzak egin duen lanaren balorazio globala eta Planaren ebaluaziotik ateratako ondorioak.

Vitoria-Gazteiz, 2005eko abenduaren 12a

Ikuskari Nagusia

Izpta.: Juan M^a Aztiria Zabala

2005-06 URTEKO PLANAREN I. ERANSKINA

IKUSKARITZAREN MAKROPROZESUETATIK ERATORRITAKO JARDUERAK

MP 01 Estrategia, Plangintza eta Antolaketa			
LOTUTAKO PROZESUA	HELBURUA	JARDUERAK	ARDURADUNA
PR 0101.- Xedearen identifikazioa eta berrikuspena.	Xedea identifikatu eta berrikusteko prozedura diseinatu eta onartzea. Xedearen formulario berri bat lortzea, onartutako prozedurarekin.	Xedea identifikatu eta berrikusteko prozedura egitea. Ikuskaritzaren xedea berrikusi eta gaurkotzea.	Ikuskaritza Nagusia Kalitate Batzordea
PR 0102.- Ikuskaritzaren estrategiak: Hiru Urteko Plana eta Urteko Plana.	Hiru Urteko Plana eta Urteko Plana egiteko prozedura bat dokumentatzea.	Hiru Urteko Plana eta Urteko Plana egiteko prozedura diseinatu eta onartzea.	Ikuskaritza Nagusia
PR 0103.- Antolaketa-egitura.	Ikuskaritzaren hierarkia- eta antolaketa-egitura adieraziko dituen prozedura bat dokumentatzea.	Ikuskaritzaren hierarkia- eta antolaketa-egitura adierazten dituen prozedura diseinatu eta onartzea.	Ikuskaritza Nagusia
PR 0104.- Lanpostuen zerrenda egitea.	LZ berria egin eta onartzea, hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-aldiaren arabera. LZ EHAAAn argitara ematea.	Ikuskaritzaren LZ berrikusi eta egokitzea. LZ EHAAAn argitara ematea.	Ikuskaritza Nagusia
PR 0105.- Barne- eta kanpo-komunikazioa.	Urteko Plana Ikuskaritza guztiari helaraztea. Lurraldearteko Batzordearen bileretan hartutako akordioen berri ikuskari guztiei ematea. Interes orokorreko gaien buruzko informazioa ikuskari guztiei ematea. Interes orokorreko gaien buruzko informazioa ikuskari guztiei ematea.	Urteko Planaren aurkezpena. Lurraldearteko Batzordean hartutako akordioak ikuskari guztiei hedatzea. Ikuskaritza Nagusiak informazio-oharrak egitea, ikuskarien artean hedatzeko. Barneko web orria prestatu eta bultzatzea.	Ikuskaritza Nagusia Edukien eta orriaren arduradunak.

MP 01 Estrategia, Plangintza eta Antolaketa			
LOTUTAKO PROZESUA	HELBURUA	JARDUERAK	ARDURADUNA
PR 0105.- Barne- eta kanpo-komunikazioa.	<p>Zonaldeko partaideen arteko komunikazioa laguntzea.</p> <p>Ikuskaritzaren jarduerarik esanguratsuenak aurkeztu eta barnean hedatzea, eta Urteko Planaren balorazioa.</p> <p>Ikuskaritzaren Urteko Plana ikastetxeei helaraztea.</p>	<p>Lurraldearteko Batzordea eta zonalde-taldeak aldizka, hilero gutxienez, biltzea,.</p> <p>Ikuskaritza guztiarentzat jardunaldiak antolatzea uztailen.</p> <p>Ikuskaritzaren Urteko Plana ikastetxeei jakinarazteko plana egitea.</p> <p>Ikastetxe bakoitzean, ezarritako planaren arabera, aurrera eramango diren Planaren jarduerari buruzko informazioa ematea.</p>	<p>Lurraldearteko Batzordea eta zonalde burutzak.</p> <p>Ikuskaritza Nagusia.</p> <p>Ikuskaritzaren bititak eta barneko administrazio-antolaketa hobetzeko taldea.</p> <p>Erreferentzia-ikuskarria.</p>
PR 0106.- Sistemaren berrikuspena.	<p>Sistema berrikusteko prozesua dokumentatu, onartu eta ezartzea.</p>	<p>Sistema berrikusteko prozesua diseinatu eta onartzea.</p> <p>Sistema berrikusteko prozesuaren garapena, ezartzeko faseen arabera.</p> <p>Urteko azken Memoria egitea.</p>	<p>Kalitate Batzordea</p> <p>Ikuskaritza Nagusia</p>



MP03.- Giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa.			
LOTUTAKO PROZESUA	HELBURUA	JARDUERAK	ARDURADUNA
PR 0301.- Pertsonal-hornikuntza.	Pertsonala hornitzeko prozedura dokumentatu eta onartzea.	Ikuskaritzan lanpostu hutsak betetzeko deialdiak argitara eman eta ebaztea, ezarritako prozeduraren arabera.	Ikuskaritza Nagusia.
PR 0302.-Pertsonal berriaren harrera.	Ikuskari berriei harrera egiteko prozesua gaurkotzea.	Lanpostu hutsak betetzen dituzten pertsonen harrera egiteko prozeduraren aplikazioa.	Ikuskaritzaren bitartekari eta barneko administrazio-antolaketa hobetzeko taldea.
PR 0303.- Pertsonalaren prestakuntza.	Pertsonalaren prestakuntza kudeatzeko prozedura diseinatu eta onartzea.	Pertsonalaren prestakuntza kudeatzeko prozedura egitea. Urteko Planak 4. artikuluan agertzen dituen prestakuntza-jarduerak antolatu eta garatzea.	Ikuskaritza Nagusia
PR 0304.- Pertsonalaren euskalduntzea.	Pertsonalaren euskalduntzea kudeatzeko prozedura diseinatu eta onartzea.	Pertsonalaren euskalduntzea kudeatzeko prozedura egitea. Urteko Planaren 5. puntuan agertzen diren jarduerak antolatu eta garatzea.	Ikuskaritza Nagusia

MP04.- Agirien kudeaketa.

LOTUTAKO PROZESUA	HELBURUA	JARDUERAK	ARDURADUNA
<p>PR 0401.- Dokumentazioaren eta erregistroen kontrola.</p>	<p>Agiriak kudeatzeko Ikuskaritzaren sistema gaurkotzea.</p> <p>Era planifikatuan, koordinatuan eta taldeka lan egitea: Ikuskaritzaren azpiprozesu guztiek egiteko prozedura zehaztuta izan behar dute, ezarritako sistemaren arabera.</p> <p>Zonalde-talde guztiek eta Lurraldearteko Batzordeak taldeak antolatzeko kalitate-tresnen arabera antolatzen dute beren funtzionamendua.</p> <p>Ikastetxearen jarraipena egiteko agiria egitea.</p>	<p>Agiriak kudeatzeko sistema erabiltzea Ikuskaritzak sortzen duen dokumentazioan.</p> <p>Azpiprozesu-taldeak beren diseinuaz arduratzen dira, ezarritako sistemaren arabera.</p> <p>Zonalde-talde guztiek eta Lurraldearteko Batzordeak beren gain hartzen dute taldeak antolatzeko egin diren kalitate-tresnak erabiliz funtzionatzearen ardura.</p> <p>Ikastetxearen jarraipena gauzatzeko agiria egitea.</p>	<p>Ikuskaritza Nagusia, Kalitate Batzordea eta Azpiprozesu-taldeak.</p> <p>Azpiprozesu-taldeak</p> <p>Zonalde-taldeak eta Lurraldearteko Batzordea.</p> <p>Ikuskaritzaren bisitak eta barneko administrazio-antolaketa hobetzeko taldea.</p>

MP05.- Neurketa, azterketa eta hobekuntza			
LOTUTAKO PROZESUA	HELBURUA	JARDUERAK	ARDURADUNA
PR 0501.- Jendearen gogobetetze-maila neurtzea.	<p>Informazioa biltzea, Ikuskaritzaren jardueren barne- eta kanpo-hartzaileek zein gogo-betetze-maila duten neurtzeko.</p> <p>Ikuskaritzaren Urteko Planaren emaitzak eta balorazio globala laburtzea.</p>	<p>Ikuskaritzaren jardueren barne- eta kanpo-hartzaileek zein gogo-betetze-maila duten ezagutzeko prozedura eta tresnak berrikustea.</p> <p>Tresnak lagin esanguratsu batean aplikatzea.</p>	Kalitate Batzordea
PR 0502.- Proposamenak, kexak eta erreklamazioak.	Ikuskaritzaren jardueren kanpo- eta barne-hartzaileen proposamenak, kexak eta erreklamazioak egiteko prozedura bat gauzatzea.	Proposamenak, kexak eta erreklamazioak egiteko prozedura egin eta ezartzea.	Kalitate Batzordea
PR 0503.- Barne-auditoretzak.	Ikuskaritzaren prozesuen barne-auditoretzarako prozedura bat dokumentatu eta onartzea.	Barne-auditoretzako prozedura egin eta onartzea.	Kalitate Batzordea
PR 0504.- Desadostasunen kudeaketa	Desadostasunak kudeatzeko prozedura bat dokumentatu eta onartzea.	Desadostasunak kudeatzeko prozedura egin eta onartzea.	Kalitate Batzordea
PR 0505.- Jarduera zuzentzaileak eta prebentzio-jarduerak.	Jarduera zuzentzaileak eta prebentzio-jarduerak kudeatzeko prozedura bat dokumentatu eta onartzea.	Jarduera zuzentzaileak eta prebentzio-jarduerak kudeatzeko prozedura egin eta onartzea.	Kalitate Batzordea

2005-06 URTEKO PLANAREN 2. ERANSKINA

2005-06KO IKUSKARITZA PLANAREN AZPIPROZESUAK APLIKATZEKO ZEHAZTAPENAK.

PR 0201. Ikastetxeen ebaluazioa eta auditoretza

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesu-taldea		Azpiprozesua aurrera eramatea.	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0201 01	Ikastetxeen ebaluazioa, EFQM bikaintasun-ereduaren arabera.	1. hiruhil.	Ik. txos.	---	Euskadi Saria lortu nahi duten ikastetxeak	Javier Granja	---	Ebaluatzaileen taldeko ikuskariak	EAE	Ebaluazio-batzordea
0201 02	Kalitatea gestionatzeko sistemaren ebaluazioa (KGS): <ul style="list-style-type: none"> Berritzegune berrien auditoretza. Ikastetxe berrien auditoretza 	3. hiruhil.	Ik. txos.	06/2	Ikastetxe eta berritzegune berriak	J.A. Fernández	M. Bonet C. Mediavilla	Kalitatea kudeatzeko sisteman esperientzia duten ikuskariak.	EAE	Ebaluazio-Batzordea
0201 04	Kualifikazio-sistemari lotutako prestakuntzaren auditoretza.	Urria-Maiatza	Ik. txos. EAE txos	06/30	Lagina	P. Bilbatua	J.A. González J.M. Kortazar E. Salaberria	Auditoretzetan esperientzia duten ikuskariak	EAE	Ebaluazio-Batzordea
0201 05	Araubide orokorreko, araubide bereziko eta kirol-irakaskuntzetako heziketa-zikloen auditoretza.	Urria-Maiatza	Ik. txos. EAE txos	06/30	Heziketa-zikloak dituzten ikastetxeen lagina	P. Bilbatua	J.A. González J.M. Kortazar E. Salaberria	Auditoretzetan esperientzia duten ikuskariak	EAE	Diseinua eta balidazioa Ebaluazio-Batzordea

PR 0202. Irakasleen ebaluazioa.

KODEA	Aziprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Aziprozesu-taldea		Aziprozesua gauzatzea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
Irakasle-funtzioaren eta zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa:										
0202 02a	Zerbitzu-eginkizunak.	2. eta 3. hiruhil.	Banakako txostena	06/01	Guztiak	M. Hidalgo	P. Peñacoba J.M. Guillén K. Arriaga M. Hernández	Erref. ikus.	Zonaldea	Ebaluazio-Batzordea
0202 02b	Lanpostuaren lan-eskakizunera egokitzea.	Iraila.	Banakako txostena	Eskaeraren arabera	Eskaera guztiak	M. Hidalgo	P. Peñacoba J.M. Guillén K. Arriaga M. Hernández	Ikuskari espezialistak	Zonaldea	Ebaluazio-Batzordea
0202 02c	Irakasletzan aritzeko gaitasuna.	Ikasturte osoa	Banakako txostena	Eskaeraren arabera	Eskaera guztiak	M. Hidalgo	P. Peñacoba J.M. Guillén K. Arriaga M. Hernández	Erref. ikus.	Zonaldea	Ebaluazio-Batzordea
0202 03	Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa	Ikasturte osoa				M. Zarraonandia	M. Losarcos P. Ibarrodo C. Mediavilla	Erref. ikus.	Zonaldea	Diseinua eta balidazioa Ebaluazio-Batzordea
0202 05	Praktiketako funtzionarioak.	2. hiruhil.	Banakako txostena	03/31	Musikako Irakasleen Kidegoa	M. Hidalgo	P. Peñacoba J.M. Guillén K. Arriaga M. Hernández	Erref. ikus.	Zonaldea	Ebaluazio-Batzordea

PR 0202. Irakasleen ebaluazioa.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesu-taldea		Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
Laguntza-zerbitzuen ebaluazioa:										
0202 04	Laguntza-zerbitzuen ebaluazioan parte-hartzea.	Ikasturte osoan								Diseinua eta balidazioa. Ebaluazio-Batzordea

PR 0203. Hezkuntza Sailak onartutako programen eta proiektuen jarraipena, kontrola eta ebaluazioa .

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesu-taldea		Azpiprozesua	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0203 04	Hezkuntza Berriztapenerako proiektu globalen kontrola eta ebaluazioa.	2. hiruhil.	Proi. txos. Lur. txos EAE txos	05/30	Proiektu globalak	L. Rojo	G. del Río I. Larrinaga	Erref. ikus.	Zonaldea	Ebaluazio-Batzordea
0203 07	Ikastetxeen Prestakuntza-proiektuen jarraipena eta kontrola.	Ikasturte osoa	Ik. txos.	06/15	Sareko LHko ikastetxeen sarea	J.L. Sabando	X. Egizabal K. Arriaga	Erref. ikus.	Zonaldea	

PR 0203. Hezkuntza Sailak onartutako programen eta proiektuen jarraipena, kontrola eta ebaluazioa.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaitzak		Aplikazio-eremua	Azpiprozesu-taldea		Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
Currículum desberdineko programak:										
0203 09	Curriculum desberdineko eskaeren balorazioa.	Ekaina	Ik. txos.	06/30	Eskaera guztiak	Javier Granja	M ^a V. García L. Barrutia I. Negredo	Erref. ikus.	Zonaldea	
0203 10	Onartutako programen kontrola	Urria	Ik. txos.	10/31	Baimendutako talde guztiak	Javier Granja	M ^a . V. García L. Barrutia I. Negredo	Erref. ikus.	Zonaldea	
Heziketa Ekintza Zehatzetarako Egitasmoak:										
0203 12	DBHrako Heziketa Ekintza Zehatzetarako Egitasmoen eskaerak	Ekainazuztaila	Ik. txos.	07/07	Eskaera guztiak	Javier Granja	M ^a . V. García L. Barrutia I. Negredo	Erref. ikus.	Zonaldea	
Programa Osagarriak:										
0203 14	DBHrako eskolatzeko Programa Osagarrien eskaeren balorazioa.	Eskaeren arabera	Banakako txostena	Eskaeraren arabera	Eskaera guztiak	Lurralde buruak	---	Erref. ikus.	Zonaldea	

PR 0203. Hezkuntza Sailak onartutako programen eta proiektuen jarraipen, kontrol eta ebaluazioa.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesu-taldea		Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
Ikasle etorkinak eta gizarte-egoera ahuleko ikasleak eskolatzeko programaren jarraipen eta kontrola:										
0203 18a	Ikasle etorkinak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan eskolatzeko prozesuaren kontrola. jarraipen eta kontrola.	Ikasturte osoa	Ik. txos. Lur. xos EAE txos	06/18	Zerikusia duten ikastetxe guztiak	I. Tazón	R. Fernández J.A. Rey P. Carnicero D. Rabanal	Erref. ikus.	Zonaldea	
0203 18b	Ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan Hizkuntz Errefortzuko Programan dauden ikasle etorkinei arreta emateko prozesuaren kontrola.	Ikasturte osoa	Ik. txos. Lur. xos EAE txos	06/18	Zerikusia duten ikastetxe guztiak	R. Fernández	J.A. Rey P. Carnicero D. Mazuela	Erref. ikus.	Zonaldea	
0203 18c	Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan ikasle etorkinak eskolatzearren kontrola.	Ikasturte osoa	Ik. txos. Lur. xos EAE txos	06/18	Zerikusia duten ikastetxe guztiak	I. Tazón	R. Fernández J.A. Rey P. Carnicero D. Rabanal	Erref. ikus.	Zonaldea	
Haur-eskolak:										
0203 20	0-3 urteko udal haur-eskolen deialdian ezarritako baldintzen jarraipen eta kontrola.	Ikasturte osoa	Ik. txos. Lur. xos EAE txos	06/30	0-3 urteko udal haur-eskola guztiak	I Cereceda	A. Uriarte A. Salvador J. Pérez A. Unamuno P. Valiente	Erref. ikus.	EAE	
0203 21	0-3 urteko Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuen deialdian ezarritako baldintzen jarraipen eta kontrola.	Ikasturte osoa	Ik. txos. Lur. xos EAE txos	06/30	0-3 urteko ikastetxe pribatu guztiak	I Cereceda	A. Uriarte A. Salvador J. Pérez A. Unamuno P. Valiente	Erref. ikus.	EAE	

PR 0203. Hezkuntza Sailak onartutako programen eta proiektuen jarraipena, kontrola eta ebaluazioa.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesu-taldea		Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0203 22	Haur Eskolen jarraipena eta kontrola: titulazioen kontrola, Hezkuntza Proiektua eta Curriculum Proiektua.	Ikasturte osoa	Ik. txos. Lur. xos EAE txos	06/30	Haur Eskola guztiak	I. Cereceda	A. Uriarte A. Salvador J. Pérez A Unamuno P. Valiente	Erref. ikus.	Zonaldea	
0203 23	0-3 urteko tartearen alderik esanguratsuenak jasotzen dituen proposamen bat egitea, geroago arau gisa erregulatzeko.	1. eta 2. hiruhil.	EAE txos	03/31		I. Cereceda	A. Uriarte A. Salvador J. Pérez A. Unamuno P. Valiente			
Etkez etxeko irakaslaguntza										
0203 24	Etkez etxeko irakaslaguntzaren jarraipena eta kontrola	Ikasturte osoa	Lur. txos.	06/30	Irakasle eta ikasle guztiak	José A. Rey	P.L.Rodríguez M. Saenz	Taldeak	Lurraldea	
0203 25	LHEPren barruko ekintzen kontrola	1go. hiruh	Ik. txos.	12/16	LHko ikas. pribatuak	J.A. Romero		Erref. ikus.	Zonaldea	

PR 0204. Arau-kontrola.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesu-taldea		Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
Ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua:										
0204 01	EEDaren arau-kontrola	1. hiruhil.	Ik. txos. Lur. xos EAE txos	11/30 12/10 12/20	Ikastetxe guztiak	José A. Romero	J. Pérez J.A. Sánchez J.A. Ayucar	Erref. ikus.	Zonaldea	
0204 03	Musika Kontserbatorioetako EEDaren arau-kontrola.	2. hiruhil.	Ik. txos.	02/24	Ematen duten ikastetxeak	Javier Granja	E. Gumuzio I. Erice J.I. Molinuevo	Erref. ikus.	Zonaldea	
0204 04a	HEOko EEDaren arau-kontrola	1. hiruhil.	Ik. txos.	12/20	Ematen duten ikastetxeak	Javier Granja	M. Narbona J.M. Guillén P.J. Romero Marina García	Erref. ikus.	Zonaldea	
0204 04b	Kirol Irakaskuntzetako EEDaren arau-kontrola.	1. hiruhil.	Ik. txos.	12/20	Ematen duten ikastetxeak	Javier Granja	P.J. Romero Marina García	Erref. ikus.		
0204 04c	Arte eta Diseinuko Eskolaren EEDaren arau-kontrola.	1. hiruhil.	Ik. txos.	12/20	Ematen duten ikastetxeak			K. Arriaga	Zonaldea	

PR 0204. Arau-kontrola.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesu-taldea		Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0204 05	Ikastetxeetako talde eta ikasle kopuruaren kontrola. Egoerari buruzko txostena.	1. hiruhil.	Ik. txos.	Eskaearen arabera	Ikastetxeak Eskaeraren arabera	---		Erref. ikus.	Zonaldea	
0204 06	Ikastetxeen dokumentazio akademiko eta administratiboaren kontrola eta azterketa.	1. hiruhil.	EAE txos	12/15	Ikastetxe guztiak	Javier Granja	R. Fernández J.A. Altozano J.M. Pineda	Erref. ikus.	Zonaldea	
0204 07	Irakasleen absentismoaren kontrola.	Ikasturte osoa	Ik. txos. Lur. xos EAE txos	06/09	Ikastetxe publiko guztiak	J.P. Risco	D. Aguado J. Pérez E. González	Erref. ikus.	Zonaldea	
0204 08	Kide bakarreko eta anitzeko organoak aukeratzeko prozesuaren jarraipena eta kontrola.	2. eta 3. hiruhil.	Lur. txos	12/20	Ikastetxe guztiak	Lurralde Buruak	---	Erref. ikus.	Zonaldea	
0204 09	Ikastetxeen eskola-egutegien jarraipena eta kontrola.	Ekaina	Ik. txos.	06/30	Ikastetxe guztiak	Lurralde Buruak	---	Erref. ikus.	Zonaldea	
0204 10	Ikasturtearen hasierako gorabeheren jarraipena.	Iraila-urria	Ik. txos.	09/30	Ikastetxe guztiak	Lurralde Buruak	---	Erref. ikus.	Zonaldea	

PR 0204. Arau-kontrola.

CÓDIGO	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesu-taldea		Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0204 11	Itunpeko gelen kontrola.	1. hiruhil.	Ik. txos.	Eskae raren arabe ra	Eskaeraren arabera	Lurralde Buruak	---	Erref. ikus.	Zonaldea	
0204 14	Eskolaketa Liburuen eskaera, erregistroa eta banaketa.	1. hiruhil.	Zon txos Lur. txos	12/20	Ikastetxe guztiak	José A. Romero	R. Fernández J.A. Altozano J.M. Pineda	Erref. ikus.	Zonaldea	
Curriculuma:										
0204 17	Programazio didaktikoen ikuskatzea.	Programazio laburtuen fasea 1. hiruhil. Departamentua bisitatzearen fasea 2. hiruhil.	Ik. txos.	12/20	DBH eta Batxilergoa dituzten ikastetxe guztiak	Javier Granja	M.V. García M. Narbona E. Vélez Leo Puente	Erref. ikus. Ikuskari espezialistak	Zonaldea	
			Ik. txos. EAE txos	03/30	Lagina				Lurraldea	
0204 19	Curriculum-egokitzapen esanguratsuen jarraipena eta kontrola.	Ikasturte osoa	Ban. txos Lur. txos EAE txos	05/30	Proposamen guztiak	---	---	Erref. ikus.	Zonaldea	
0204 20	Helduen Hezkuntzako ikastetxe publiko espezifikotako arautu gabeko prestakuntza-programen kontrola.	Onarpen-fasea: iraila-urria Jarraipen- eta ebaluazio-fasea: ekaina	Ik. txos. EAE txos	10/10 06/30	Programa guztiak	Javier Granja	P.L. Rodríguez D. Rabanal P. Carnicero	Erref. ikus.	Zonaldea	

PR 0204. Arau-kontrola.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesu-taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
Irakasle eta ikasleak:										
0204 22	Ikasleen diziplina-espeditenteen kontrola.	Ikasturte osoa	Aldiko txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erref. ikus.	Zonaldea	
0204 23	Legezko araudia betetzen dela kontrolatzea, ebaluazioari, beste kurso batera pasatzeari, titulazioari...etab.i begira.	Ikasturte osoa	Aldiko txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erref. ikus.	Zonaldea	
02 04 24a	Hainbat mailatan gertatzen diren euskara-salbuespenen kontrola.	1. hiruhil.	Banakako txostena	12/01	Eskaera guztiak	M Zarraonandia	C. Mediavilla Leo Puente	Ikuskari arduradunak	Lurraldea	
02 04 24b	Euskara-salbuespenen luzapenen jarraipena	2. eta 3. hiruhil.	Ik. txos.	05/19	Lagina	M Zarraonandia	C. Mediavilla Leo Puente	Erref. ikus.	Lurraldea	
0204 25	DBHko Graduatu-proposamenen kontrola.	Ekaina-uztaila	---	---	DBH duten ikastetxe guztiak	Lurralde Buruak	Zonalde Buruak	Erref. ikus.	Zonaldea	

PR 0204. Arau-kontrola.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesu-taldea		Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0204 26	Irakasleen titulazioen kontrola.	Ikasturte osoa	Banakako txostena	Eskararen arabera	Eskaera guztiak	Lurralde Buruak	---	Erref. ikus.	Zonaldea	
0204 27	Ikasleen absentismoaren kontrola	Ikasturte osoa	Lur. txos EAE txos	06/30	Lehen Hezkuntza eta DBH ematen dituzten ikastetxe guztiak.	I Cereceda	Marina García L. Barrutia L. de Juan	Erref. ikus.	Zonaldea	
0204 28	Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleen arteko tratu txarrek duten eraginaren jarraipena eta kontrola.	1. eta 2. hiruhil.	Ik. txos. Lur. txos EAE txos	03/30	Kasu guztiak.	Juan M ^a Aztiria	J. Grisaleña Lourdes Isasa Nile Arroita B.Manzarbeitia	Erref. ikus.	Zonaldea	
0204 29	Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen jarraipena eta kontrola.	1. eta 2. hiruhil.	Ik. txos. Lur. txos EAE txos	03/30	Ikasle guztiak	Imanol Tazón	D. Rabanal Luis Rojo D. Mazuela	Erref. ikus.	Zonaldea	
0204 30	Hezkuntza-premia berezietako ikasleentzat erabiltzen diren giza baliabideen kontrola.	1. eta 2. hiruhil.	Ik. txos. Lur. txos EAE txos	03/30	Hezkuntza-Laguntzako Espezialista eta PT guztiak	Imanol Tazón	D. Rabanal Luis Rojo D. Mazuela	Ikuskari espezialistak	Zonaldea	

PR 0205. Ikasleen ebaluazioa.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesu-taldea		Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0205 01	Lehen Hezkuntzako eta DBHko (derrigorrezko irakaskuntzako) ikasleen eskola-emaitzen azterketa eta balorazioa.	Ekainazuztaila	Inf. fitx.	07/10	Ikastetxe guztiak	Javier Granja J.A. Romero	JA Sánchez + zonalde mailako arduradunak	Erref. ikus.	Zonaldea	
			EAE txos	07/20				---		
0205 02	: Batxilergoko eta Heziketa-Zikloetako (derrigorrezko hezkuntzaren ondoko) ikasleen eskola-emaitzen azterketa eta balorazioa.	Ekainazuztaila	Inf. fitx.	07/20	Ikastetxe guztiak	Javier Granja J.A. Romero	JA Sánchez + zonalde mailako arduradunak	Erref. ikus.	Zonaldea	
			EAE txos	09/30				---		

PR 0206. Ikastetxeei aholkularitza ematea

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesu-taldea		Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0206 01	OOGko edo Eskola Kontseiluko bizikidetzaren batzordeari aholkularitza ematea.	Ikasturte osoa	Noizbehin kako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erref. ikus.	Zonaldea	
0206 02	Ikasleak ebaluatzeko prozedurak alderdi pedagogiko eta administratiboetan zuzen erabiltzeko buruzko erreklamazioei kasu egitea.	Ikasturte osoa	Noizbehin kako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erref. ikus.	Zonaldea	

PR 0206. Ikastetxeei aholkularitza ematea.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesu-taldea		Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0206 03	Diziplina-zigorrek behar bezala tramitatzeari buruzko aholkularitza.	Ikasturte osoa	Noizbehin kako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erref. ikus.	Zonaldea	
0206 04	Eskolaketa Liburuak, ebaluazio-aktak eta ikasketa-espeditentak bete eta zaintzeari buruzko aholkularitza.	Ikasturte osoa	Noizbehin kako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erref. ikus.	Zonaldea	
0206 05	Ikastetxearen Curriculum-Proiektua, Urteko Plana eta Memoria egiteari buruzko aholkularitza.	Ikasturte osoa	Noizbehin kako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erref. ikus.	Zonaldea	
0206 06	Zuzendaritza-taldee beren kudeaketari lotutako gaiei buruzko aholkularitza ematea.	Ikasturte osoa	Noizbehin kako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erref. ikus.	Zonaldea	
0206 07	Hezkuntza-programa europarretan parte hartzeko ikastetxeei aholkularitza ematea.	Ikasturte osoa	Noizbehin kako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erref. ikus.	Zonaldea	

PR 0207. Administrazioarekin lankidetzan egiteko jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesu-taldea		Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0207 01	Hezkuntza Saileko arduradunek: Sailburuak, Sailburuordeek, Zuzendariek eta Lurralde Ordezkariek, eskatutako txostenak.	Ikasturte osoa	Banakako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Ikuskaritza Nagusia + Lurralde Buruak + Ikuskariak	EAE	
0207 02	Euskadiko Eskola Kontseiluak eskatutako txostenak	Ikasturte osoa	Banakako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Ikuskaritza Nagusia + Lurralde Buruak	EAE	
0207 03	Arartekoak eskatutako txostenak.	Ikasturte osoa	Banakako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Ikuskaritza Nagusia + Lurralde Buruak	EAE	
0207 04	Eusko Legebiltzarrak eskatutako txostenak.	Ikasturte osoa	Banakako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Ikuskaritza Nagusia + Lurralde Buruak	EAE	
0207 05	Estatuko Goi Ikuskaritzak eskatutako txostenak.	Ikasturte osoa	Banakako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Ikuskaritza Nagusia + Lurralde Buruak	EAE	
0207 06	Euskarazko argitalpen-proiektuak baimentzeko txostenak.	Ikasturte osoa	Banakako txostena	07/20	Eskaeraren arabera	---	---	K. Mujika	---	

PR 0207. Administrazioarekin lankidetzan egiteko jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesu-taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskarier jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0207 07	Ikastetxe publikoetako irakasleei espedienteak irekitzea.	Ikasturte osoa	Banakako txostena	---	Eskaeraren arabera	A. Anasagasti	J.I. Molinuevo I. Tazón M. Bonet J. A. Fernández P. Peñacoba	Izendatutako ikuskaria	Lurraldea	
0207 08	Ondorengo eginkizunetarako osatutako batzordeetan parte hartzea: titulazioak, zerbitzu-eginkizunak, lehiaketa eta beste deialdi batzuetarako irakasleen merezimenduak, berriztapen-proiektuak, Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren proba libreak, etab...	Deialdiaren arabera	Dei. arabera	---	Deialdiaren arabera	---	---	Izendatutako ikuskariak	EAE	
0207 09	Atzerriko ikasleak eta gizarte-egoera ahuleko biztanleak eskolatzeko batzordeetan parte hartzea.	Eskaeraren arabera	Esk. arabera		Eskaeraren arabera	---	---	Zonalde Buruak eta Lurralde Buruak	Zonaldea	
0207 10	Ondorengo epaimahaietan parte hartzea: Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren proba libreak, Heziketa-Zikloetara sartzeko, Unibertsitatera sartzeko probak, Batxilergoko aparteko sariak, etab...	Deialdiaren arabera	Dei. arabera	---	Deialdiaren arabera	---	---	Izendatutako ikuskariak	EAE	
0207 12	Ikastetxe publikoen planifikazioan parte hartzea: ikasle taldeak, plantilak, LZ, etab...	Uztaila	---	---	Eskaeraren arabera	---	---	Izendatutako ikuskariak	Lurraldea	

PR 0207. Administrazioarekin lankidetzan egiteko jarduerak.

CÓDIGO	Aziprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Aziprozesu-taldea		Aziprozesua gauzatzea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0207 13	Parte hartzea Sailaren Ebazpen eta Zirkularrak egiteko prozesuan.	Eskaeraren arabera	---	---	Eskaeraren arabera	---	---	Ikuskaritza Nagusia	EAE	
0207 14	Unibertsitatera sartzeko probak koordinatu eta egiteko EHUrekin lankidetzan aritzea.	Ikasturte osoa	---	---	Izendap. arabera	---	---	Izendatutako ikuskariak	EAE	
0207 15	Ikastetxe publikoetan kide bakarreko organoak egoteko proposamena.	Ekaina	Banakako txostena	06/30	Ikastetxe publiko guztiak	---	---	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0207 16	Udalekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan jardutea: Emakunde, Adin Txikikoen Fiskaltza, Sarean, Kalitate Agentzia, Foru Aldundiak, etab...	Eskaeraren arabera	---	---	Eskaeraren arabera	---	---	Izendatutako ikuskariak	EAE	
0207 17	Hezkuntza-adierazleen euskal sistema bat ezartzeko ISEIrekin lankidetzan aritzea.	Ikasturte osoa	---	---		---	---	M. Hidalgo	EAE	
0207 19	Zuzendarien prestakuntzan parte hartzea.	1. hiruhil.			Eskaeraren arabea			I. Tazón M. Hernández J.A. Ayúcar J.A. Fernández	EAE	

PR 0207. Administrazioarekin lankidetzan egiteko jarduerak.

CÓDIGO	Aziprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Aziprozesu-taldea		Aziprozesua egitea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0207 20	Euskarazko ikasmaterialari buruzko informazioa biltzeko Berriztapen Zuzendaritzarekin lankidetzan jardutea.	Ikasturte osoa	EAE mailako txostena			K. Mujika				
0207 21	Pedagogía Terapeutikoen habilitazioei buruzko txostenak	Ikasturte osoa	Banakako txostena		Eskaeraren arabea			R. Fernández P. Peñacoba A. Abrisqueta	Lurraldea	